



IRULEGI

# Jara (Irulegi)

Distantzia <b>11,47 km</b>	Desnibela <b>620 m</b>	Iraupena <b>5h00</b>	Tipologia <b>Itzulia, joan-etorriko zati batekin</b>	Zedarriak <b>PLR seinaleak (horiak)</b>
-------------------------------	---------------------------	-------------------------	---	--

Ibilaldiaren abiapuntua Irulegiko elizako aparkalekuan dago.

GPS datuak: **UTM : 638158 - 4782012 Lat/Long : 43.17825/-1.30010**

Igotzean tekniko den ibilbide honek Jararen gailurrera darama. bidexka hertsia batean ibili ondoren, ibilbidea bihurgunetan doa gora eta txirrundulariari Aldude ibarraren gaineko ikuspegi ederra eskaintzen dio. Gailurretik den ikuspegiak ez du laudorio beharrik. Gurpiletarako oso ona den pista batean jaistea besterik ez duzu orain.



## 1. ZATIA > Lehengo priore-etxearen heinean

UTM : 638158 - 4782012

Elizaren eta Herriko Etxearen aitzinetik pasatzen den errepeida hartu. Zuzen jarraitu, eskuineko lehen bi errepide ttipiak utziz. Elizatik 300 m ibili ondoan, hormatxo apal baten parean, hartu eskuineko errepeida. 50 m ibili eta errepeida utzi, eskuineko bidea hartzeko. Erreka ttipi baten bazterretik ibili. Gero, errekatik urrundu, eta, pentze bat baino lehen eskuinera doan bidexkatik joan. Bidexka hertsia eta itzaltsua da, eta lur azalean gisuharriak ageri dira. Bide batera iritsi. Orduan, oihana bukatu eta mahastiak hasten dira. Nahi izanez gero, lehengo priore-etxea 200 m-ra dago, eskuinean.

## 2. ZATIA > Mahastian barna


UTM : 638431 - 4782420

Landare hesien arteko bide hertsia batetik jarraitu. 150 m urrunago, bide batera iritsi. Joan eskuinera, igotzen segitzeko. Lehengo priore-etxera eta kaperara dagoen ikuspegiak gozatu. Bideak bigarren bihurgunea egiten duelarik ezkererantz, joan eskuinera, eta xeila bat ireki eta hetsi. Jarraitu Ilarria etxaldearen mahasti-lursaillean barna. Xeila bat ireki eta hetsi, mahastietatik atera eta errepeida ttipi batera iritsi.

## 3. ZATIA > Bide handia

UTM : 639179 - 4782633

Errepide honetan, joan ezkerredera. Gorago, etxe baten ondotik, hartu berriz ezkerredera. Pixka bat urrunago, laugune bat duen lepo batera iritsi. Hortik, ikuspegia hobea da. Hartu eskuineko bide bat, eta berriz igotzen hasi. Uraska pasatu eta berehala, utzi eskuineko bidea, eta, 100 m urrunago, hartu eskuineko bidea. Lurrean, hare-harri gorriak azaleratzen dira. Bide bazterrean, iratzeak, oteak eta ametzak clauda. Bidearen hasieratik 1,3 km-ra dagoen bidebanatze batean, segitu zuzen. 700 m urrunago, pentzeen artetik pasatu ondoan, errepeida ttipi batera iritsi.



## 4. ZATIA > Irazelhaiko lepoa

UTM : 639569 - 4783713

Errepidean, joan ezkerredera. 600 m urrunago, errepeida utzi, gailurraren itzulia egiten duen eskuineko bidea hartzeko. Errepidera itzultzen, joan zuzen gailurrera iristeko. Antenen ondotik, gozatu piknika gunea eta ikuspegi panoramikoaz. Jarraitu errepeidearen luzapenean dagoen bidetik. Jaitsiera pixkanaka hasten da, lepo bateraino. Lepoa identifikatzen da ezkerrealdean dagoen eta hormatxoaz eta zuhaitzez (lizarrez batez ere) inguratutako dagoen pentze bati esker.

## 5. ZATIA > Iratzeen artetik

UTM : 638146 - 4784471

Hartu pentzearen bazterretik doan ezkerreko bidea. 50 m ibili ondoan, harresian errotu den pago eder baten heinean, hartu ezkerreko bidexka. 300 metro geroago, joan berriz ezkerredera, bide zabalago batetik. Berriz ere, ibilbideak iratze eta ametzen artetik jarraitzen du. Bide luze horretan jaisten da, pixkanaka. Lepotik 1,5 km ibili ondoan, jaisten segitu, eskuinerantz. Gero, 200 m urrunago, zuzenean maldan beheara doan eskuineko beste bide bat aurkitu.

## 6. ZATIA > Herrira itzultzea

UTM : 638527 - 4783368

Irulegiko herrirantz jaisten den bide hau hartu. Ibilbidearen ardatzaren arabera, herria pixka bat ezkerregera ikusten da. Lekuka hareharrizko lauza ederrak agertzen dira. Jaitsiera zuta eta lerrakorra da, baina, behegera, urki lerroek itzal prezagarria eskaintzen dute. Bide perpendikular batera iristen, mahastia berriz kausitzen da. Joan ezkerredera, errepedera laster iristeko, Arretxea etxaldeko sotoaren heinean. Joan eskuinera, eta, gero, 300 m urrunago, joan ezkerredera, herriko plazara eta elizara itzultzeko.

## INTERESGUNEAK

### ❖ Lehengo priore-etxea

Gaur egungo hilerriaren erdian dago. Orreagako abadiako fraideek eraiki zuten XII. mendean. Eraikin horren inguruan mahastia jarri zuten, Jondoni Jakue bideko beleariak errezibitzeko ezinbestekoa zen ardo agiteko.

UTM : 638435 - 4782236

### ❖ Irulegiko mahastia

Batez ere terrazetan landatu dira mahastiak, erliebe patartsuan. 1970ean, Irulegiko mahastiak jatorri deitura kontrolatua (AOC sormarka) eskuratu zuen. 240 hektarea inguru ditu, 11 mahastizain independente biltzen ditu eta soto kooperatiba bat du. Bertako lurretan Bordelesa beltza (Tannat), Axeria (Cabernet) eta Izkiriota (Manseng) mahats motak lantzen dira. Ondorioz, Irulegiko ardoak konplexuak dira.

UTM : 639047 - 4782617

### ❖ Jarako gailurra

Jara mendia Errobi "handiaren" eta Aldudeko Errobiren arteko elkar-gunean dago. Nafarroa Behereko mendien arteko junta egiten du. Arrosako eta Bidarraiko ardatzean dagoen Jararen tonorra ozeanora begira dagoela dirudi, Errobiren ibai bihurguneei jarraikiz.

UTM : 638771 - 4784415

## ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Leku horretatik goiti, jaitsiera harrisua eta lerrakorra da. Kontuz ibili, Arretxea etxaldeko sotoaraino  
UTM : 638527 - 4783368

- Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

## EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Abiapuntuan: ura, komunak, zikinontziak, piknikatzeko mahaia  
UTM : 638158 - 4782012

- Jara kaskoan ; piknikatzeko mahaiaik, zikinontziak, orientazio mahaiaik  
UTM : 638771 - 4784415



# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziazko formatua: WGS 84 - UTM 30T

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

### Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak  
- BAIGORRI  
Herriko Etxeko plaza  
+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU  
Charles de Gaulle plaza  
+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI  
Charles de Gaulle plaza  
+33(0)5 59 37 03 57

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR®	GRP PAYS	GR®	VTT
	TOKIKO BIDEXKA	TOKIKO IBILBIDE LUZEA	IBILBIDE LUZEA	BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└	└	└	▲
Itzul eskuin	┘	┘	┘	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗